

Programaren garapena :

Ekintza	Gaia	Tailerra	Deskribapena	Helburuak	Publikoa	Saioaren iraupena	Kopurua
1		Dastatu jostatuz !	Desafio sentsorialak eta jarduera ludikoak, kalitatezko zein sasoiko fruit eta/edo barazki freskoekin	5 zentzuen funtzionamendu-printzipioak eta elikaduran duten rola ezagutzea	7-12 urte	Ordu bat	24 perts. saioka
2		Euskal Herriko produktuak	Produktu bat deskubritu eta dastatu (aukeran)	Eskualdeko produktu baten kalitatea eta berezitasuna ulertzea	7-12 urte	Ordu bat	12 perts. saioka
						Ordu bat eta erdi	24 perts. saioka
3		Infernuko piramidea	Karta eta eskuaire jokoa	Elikagaien sailkapena deskubritu eta elikadura orekatu baten printzipioak ulertzea	7-9 urte	45 min	12 perts. saioka
		Apairu azpila	Simulazio jokoa, quizz eta kirol desafioak	Elikagai-familien arabera elikadura- zein energia-ekarpenak deskubritu eta kirola erregularki egiteko interesa ulertzea	9-12 urte	45 min	12 perts. saioka
4		Kasu, bero da !	Karta eta memoria jokoa	Elikadurari lotutako beroketa klimatikoaren arrazoiak ezagutu eta aterabide alternatiboak identifikatzea	7-9 urte	45 min	12 perts. saioka
		Baserriko inkesta	Pista jokoa – eredu zko baserri baten osatzea	Laborantza biologikoan ari den etxalde baten funtzionamendu-printzipioak deskubritzea	9-12 urte	45 min	12 perts. saioka
5		Pintxo party	Sukaldaritza edo pintxo tailerra tokiko eta sasoiko produktu freskoekin	Tokiko produktuak balorizatu eta sukaldaritzarako sormena garatzea	7-12 urte	Ordu bat eta erdi	12 perts. saioka
						2 ordu	24 perts. saioka



Zentzuak pizteko jarduera



Osasuna



Ingurumena



Ondare kulturala



Kontsumoa



Elika'ekintzak



Garrantzitsua :

- **Programa hau ikasturte oso bat, hiruileko bat edo denboraldi laburrago batez** egin daiteke, egituraren beharren arabera.
- **Ekintzak osorik egin behar dira, goiko taulan aurreikusitako ordenan.** Ekintza bakoitzaren datak eta antolaketa, pedagogia- eta hezkuntza-taldeen artean finkatzen dira programaren hasieran eta programaren garapenaren arabera.
- **2 eta 5. ekintzei dagokienez, pertsona kopurua 24koa saioka izan daiteke gehienez** -normalean 12koa denean- normalean, antolaketa-baldintza jakin batzuetan.
- **Ekintza bakoitza eraman aitzin, fitxa zehatzak ematen zaizkie pedagogia- eta hezkuntza-taldeei :**
 - ✓ Sarde Sardexka elkarteak animatzen duen tailerra aurkezteko (deskribapena, aipatutako nozioak, garapena)
 - ✓ Lotura interesgarriak proposatzeko (aipatzen diren nozioei buruzko bideoak)
- Sarde Sardexka elkarteak ematen ditu **1 eta 2.** ekintzetarako **lehengaiak**. **5.** ekintzarakoak familiek edo egiturek ematen dituzte, hein batean (ikus behean).
- **Pedagogia- eta hezkuntza-taldeek inplikazioa funtsezkoa da programa honetan,** bereziki prestakuntza-urrats zenbait eskatzen duen **5.** ekintzarako :
 - ✓ Elikaduraren inguruko kontsumo eko-arduratsuko karta baten sortzeko, pedagogia- eta hezkuntza-taldeek zuzendaritzapean. Behar izanez gero, Sarde Sardexka elkarteak animatu dezake etapa hori.
 - ✓ Familien desafioa : « Pintxo party » tailerrerako lehengaiak erosteko, kartaren arauak errespetatuz ; etapa hori ezinezkoa bada, egiturak emanen ditu lehengaiak.
- « Pintxo party » tailerraren ondotik (**5.** ekintza), pedagogia- eta hezkuntza-taldeen **programa burutzeko janari mahai bat** antola dezakete, egiturako aktore guzietan irekia eta **programaren helburuak errespetatuz.**

Aukeran :

- **Kit pedagogiko bat** salgai da tailer bakoitzeko lorpenak indartu edo beste haur-talde batzuekin elikaduran hezteko ekintzak egin nahiko lituzketen pedagogia-eta hezkuntza-taldeei. PDF formatuan den kit horrek, inprima daitezkeen bi fitxa-mota ditu :
 - ✓ Gaikako hiztegiak : gai bakoitzaren gako-hitz zein nozioen definizioa eta azalpena
 - ✓ Jarduera fitxak (bertsio zuria + bertsioa soluzioekin) : jokoak (hitz nahasiak, labirintoa, margotzea, collagea, etab.) gai bakoitzaren nozioak lantzeko



Zentzuak pizteko
jarduera



Osasuna



Ingurumena



Ondare kulturala



Kontsumoa